BADAIAKO SANTA KATALINA
IRUÑA OKAKOA
lorategi botanikoa

SANTA CATALINA DE BADAYA
jardín botánico
IRUÑA DE OCA

ORDUTEGIA

	Maiatzetik irailera	Irailetik abendura Martxotik maiatzera
Astelehenetik ostiralera	11:00etarik 15:00etara	11:00etarik 15:00etara
Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan	10:00etarik 20:00etara	11:00etarik 15:00etara

Azaroaren 30etik martxoa/apirilera* Lorategi Botanikoa itxita engongo da (*web gunea kontsultatu).

Azaleko argazkia: Basotxerri

Santa Katalinako Lorategi Botanikoa
01191 TRESPONDE
(Iruña Oka - Añanako Kuadrilla)
Araba/ Álava
Tel. 688 897 048
jardincatalina@gmail.com

www.jardinbotanicosantacatalina.com

sidálava
Arabako hiesaren kontrako batzordea
comisión ciudadana anti-sida de Álava

Integrazio soziolaboralerako programen garapena.

BADAIAKO SANTA KATALINA | SANTA CATALINA DE BADAYA
IRUÑA OKAKOA lorategi botanikoa | jardín botánico IRUÑA DE OCA

Ayuntamiento Iruña de Oca
Iruña Okako Udala

araba álava

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Eus.

LORATEGI BATEN ISTORIOAK

Begiratu gorantz. Geratu minutu batez eta ikusi nola laztantzen duen naturak historia eta nola inguratzen dituen zauden toki berezi honetako aurriak. Berak ezagutzen ditu inork baino hobeto jauregi-komentu zahar hau eta haren itzalpean 700 urtetan izandako gertaerak.

XIII. mendean sortu zen, iruñatarren ondorengoek begiak lurralde honetan jarri eta dorretxea eraiki zutenean. Beranduago, komentua sortuko zuten jeronimotarrei laga zieten jabetza, eta haiek fraide agustindarrei. Baina azken horiek abandonatu egin zuten desamortizazio-prozesuetan. Lehen Karlistaldian (1833-1840), erre egin zuten, horregatik ikusten ditugu gaur aztarna eta aurri hauek, hain bizitasun berezikoak.

Ingurura begiratzen baduzu, ikusiko duzu denborak eta arkitekturak bat egin dutela iraganeko elementuak zutik mantentzeko; besteak beste, uraskak, arku zorrotzetako leihateak, gezi-leihoak eta itsu-leihoak, lubanarroa, pasabidea, klaustroa eta eliza. Horrek guztia ikusirik, Iruña Okako Udalak arkitektura zaharberritzeko proiektu handi bat egitea erabaki zuen. Lorategi botaniko liluragarri bat ere diseinatu zuten, eta bertan, bost kontinentetako 1.000 espezie baino gehiago bizi dira harmonian.

Zatoz eta gozatu toki berezi honetaz, historiaren, naturaren eta arkitekturaren arteko nahasketa magiko honetaz eta gizakia ingurunearekin erlazionatzeko modu berri batez.

Ongi etorri Santa Katalinako lorategi botanikora.

Zatoz eta... >>

...Ukitu izarrak

Lorategi botanikoa zerura zabaldutako leiho bat da; Starlight fundazioak munduko lehen izar-parkearen izendapena eman dio. Iluntzean, izarren argiaz eta gaueko soinuez gozatzeko aukera izango duzu eta, gainera, aparteko agertokia da izarren azpian kontzertuak, 360 graduko Full Dome planetario-jardunaldiak eta gaueko bisita gidatuak antolatzeko.

...Parte hartu lorategiaren istorioetan

Berdin da nora begiratzen duzun; sarrerako arkua igaro ondoren, zur eta lur utziko zaitu arkitekturaren eta naturaren arteko fusio atseginak. Ibili terraza, aldapa eta harmailadietatik eta murgildu kolore, aroma eta soinuetan. Zure blogean artikulu bat idatzita edo instagramen argazki bat argitaratuta, lorategi botaniko honen istorioetan parte hartuko duzu.

...Ezagutu, ikasi eta gozatu

Santa Katalinako lorategi botanikoak programazio kultural aberats bat eskaintzen du: jardunaldiak, kontzertuak, hegaztiak antzemateko lantegiak edota landare sendagarriak ezagutzekoak. Ekitaldi batzuk dagoeneko klasiko bihurtu dira; esaterako, Ilargiaren Festa (abuztuaren 10ean).

Bazatoz?

ESPAZIOAK ETA IBILBIDEAK

ELIZA

Iruñatarren etxeak defentsarako beharrezkoa izateari utzi zionean, jatorrizko dorrearen hormetako abiaguneak erabili zituzten bizileku berriaren ondoan tenplu bat eraikitzeko.

TXIMELETEN OASIA

2017. urtetik, tximeletek beraientzat pentsatutako espazio hau daukate. Bertan aurkitzen diren landareak egokiak dira espezie ugariren habitata sustatzeko, euren bizitzako fase guztietan.

KANPAI-HORMA

Defentsa-dorre zaharra kanpandorre bihurtu zen XVI. mendean, eta, orain, hondakinetako erreferentzia-puntu eta lorategiaren ikur da.

BEGIRATOKIA

Eskailera kiribil moderno batetik begiratokira igo gaitezke; kanpai-hormaren parean dago, eta Badaiako mendilerroa eta Arabako lautada ikusten dira bertatik.

BONSAIEN EREMUA

Espazio hau bonsaien erakusketa iraunkorra jartzeko egokitua dago. Hamabi bonsai-espezie inguru daude ikusgai, bai autoktonoak bai beste latitude batzuetakoak.

KLAUSTROA

XV. mende amaieran, agustindarrak iritsi zirenean, obra garrantzitsu asko egin ziren; esaterako, klaustro nagusia, bi altuerako egitura handi batekin.

LORATEGIKO ZERBITZUAK

- Harrera
- Erabilera anitzeko gela
- Iturriak
- Komunak
- Eskailerak

BESTE TOKI INTERESGARRI BATZUK

1. Uraskak
2. Olibondoa
3. Landare aromatikoak eta sendagarriak
4. Kaktazeoak eta beste landare zukutsu batzuk
5. Baso autoktonoa
6. Pasabidea
7. Belardia

Lorategi Botanikoa Badaiako mendilerroan dago kokatuta, 4 hektarea ditu eta hiru zona klimatikotan dago banatuta:

- **Ospela**
- **Harana**
- **Egutera**

LORATEGIA

Artadi natural baten barruan dago Santa Katalinako lorategi botanikoa. Bertan, bat egiten dute historiak, naturak eta arkitekturak, eta ezohiko agertoki bat eskaintzen digute.

FATXADA NAGUSIA

XV. mendean, jeronimotarrak ostatatzeko, L formako komentu bat eraiki zen, jauregiaren eta elizaren arteko espazioa ixteko. Fatxada mantentzen du oraindik.

ARROSADIA

Zelaigune honek espazioan presente dagoen landare-familia baten izena hartzen du, eta Lorategiaren plaza nagusi bihurtu da, baita elkargune eta ospakizunetarako leku ere.

URAREN ETA LURRAREN SOILGUNEA

Unibertsoko bi elementu klasiko hauek espazio bizi bateko protagonista bihurtzen dira uraska, putzu eta urmaelaz beteriko leku batean, zitori, nenufar eta ihar frantses artean.

SUAREN ETA AIREAREN SOILGUNEA

Lorategiko bi zona klimatiko hauek harrizko arku baten bidez daude banatuta. Zona batean, landareen kolore gorriak sua irudikatzen du; bestean, aldiz, zumezko espiralek eta lore zuriek airearen mugimendua ekartzen digute gogora.